

» **TELEGRAMA**

Komedia beltza da Txalo Produksioak antzerki taldearen **Erdibana**. Jose Ramon So-roiz eta Iker Galartza ditu protagonista... eta hiltorian dagoen emakume bat. Ekainaren 9an, 20:00etatik aurrera Donostiako Antzoki Zaharrean **STOP Piperrak** taldearekin Euskal Herriko punkaren leienda bihurtu zen. Bueltan da Josetxu, taldeko abeslaria: ekainaren 10ean Donostiako Dokan ariko da **Pecozza United** post pum mugimenduko fakzio irundarraz lagunduta **STOP BLV-Art** programaren edizio berri bat martxan da ekainaren 7tik. Hilaren 17ra arte kontzertu, ikuskizun eta esperientzia harrigarriak Bilbo Zaharra kulturaren erdigune bihurtzeko **STOP**

» **DISKOA**

Denboran atzera eta aurrera



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara



Bidaia
ZINGIRA

Autoekoizpena, 2016



Bidaia guztiak ez dira berdinak eta ba-dira batzuk zugar arrasto berezia uz-zen dutenak. Halakoa da Oñatiko Zin-gira talde misteriotsuak eskainitakoa: misteriotsua diot, eramaten gaituelako rockak iraganean lantzen zituen kan-tuetara, birtuosismoan, apaingarrietan eta giroen sortzean gailurra egin zuen garaietara. Badirudi denboran atzera egin dugula nabarmen, halako paisaiak ekarriz, baina ez da horrela; eta badau-ka gaur egungotik ere. Izan ere, ez da ohikoa bidaia batez gogoeta egitean iragana eta garaikidea nahastea, ezta denboraren igaroaren eta iraupenaren kontzeptua albo batera uztea; ezta eki-pajeen mellotron, hammond zein kan-paiak garraiatzea ere. Hori guztia dauka pertsona bakarrak sortu, garatu eta gau-zatutako proiektu honek.

Natura da autoekoiztitako disko zain-du honetan uneoro presente dagoen is-pilua, bizitzako pasarte honetako bidai-de duguna. Diskoa zabaltzeko ardura duen *Hostoak*-ek aurreiritzi guztiak alde batera utzita azal berri batekin Camel taldea, pop-a, sintetizadore espazialak eta 70eko hamarkada bukaerako *The Trooper*-en antzeko erritmora pausoak ematera gonbidatuko zaitu. *Amildeg*-n, zeinak baduen damutik eta ertzetik iga-

rotzetik, teklaturen laguntzaz eramango zaitu progresibo gogor eta garaikidea-ren pasabide barrura. *Bidaia*-k tuneleko beste muturrean itxaron eta melodia nabarmeneko folk jantziarekin egingo digu harrera, nahiz eta bidean isolatu ahala laino ilunek inguratuko gaituz-ten. *Ipar haizea* gelditzeko etorri da eta horretaz jabetuta sintetizadoreek zein urruneko flamenkoak ongiatorria egi-ten diote. Geldiune instrumental bat egingo dugu Oñatiko Araatz auzoko gunere parekaezinean, *Sandaili*-k berez duen magia bustitzeko; horretarako nahikoa da sintetizadorearen suaren inguruan Jethro Tull, euskal folka, jazz-a eta flamenkoa akelarrean batzea. Eta naturaren zikloari amaiera emateko *Ba-zen behin ilargia*, sinfoniko, pop eta lati-notik edan eta mozkortzeko.

Sei kantu distiratsu eta maiestatetsu hauen atzean pertsona bakarra aurki-tuko dugu; Euskal Herrian stoner-rocka lantzen aitzindari eta luzaroan maisu izandako Sharon Stoner taldeko abesla-ri eta baxu-jotzaile izandako Iñigo Iba-rrendo oñatiarra. Sharonen geldiune luze bati probetxua hartuz, Ibarrondo bere kabuz, mimo handiz, sormen ire-ki eta aseezinez, pieza hauen egitura landuak josten aritu da. Berak graba-tu ditu instrumentu ia guztiak, nahas-tu eta diskoa ekoiztu, nahiz eta azken pausoan, Sharon Stoner taldeko kide dituen Egoitz Olalde bateria-jotzaileak eta Mikel Zarketa gitarra-jotzaileak gra-bazioan lagundu duten. ■

Sharon Stoner taldeko
abeslari eta baxu jotzaile ohia da
Iñigo Ibarrondo oñatiarra.